

METODOLOGIA-FITXA

TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINEN AITORPENAREN ESTADISTIKA (090223)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen aitortpenaren estatistika.

Eragiketaren kodea.

090223 (8/2019 Legea, ekainaren 27koa, 2019-2022 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Errolda.

Metodologia

Administrazio izaerako informaziotik abiatuta lortutako datuak. EAE-ko ekoizleek eta TEEH-en tratamendu-instalazioen titularrek, urtero, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren eranskinetan zehaztutako galdera-sortak bete behar dituzte.

Zenbait datu konputatzeko modua aldatu egin da azken urteotan:

- 2015etik aurrera "gainerako TEEH" -en frakzio mistoa 2. kategorian konputatu da - Etxetresna elektriko txikiak (110/2015 Errege Dekretua).

- 2016tik aurrera, merkaturatutako TEEen datuak kalkulatzeko, Estatuko guztizko kopuruetatik abiatuta kalkulatu dira, biztanle-kopuruaren arabera. Aurreko urteetan, errentaren arabera kalkulatu zen.
- 2016an, kudeatzaileek egindako bilketak gehitu dira, aurreko urteetan sartu ez ziren XII. eranskineko 2. taularen arabera (110/2015 Errege Dekretua). Kudeatzaileek bidalitako datuak ez du desberdintzen Euskal AEn jasotako TEEHen eta kanpoan jasotakoen artean, eta, beraz, posible da Euskal AEn baino kopuru handiagoak agertzea.

Helburuak

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen estatistikaren helburu nagusia da Euskal AEn araudian jasotako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berreskuratzeko helburuak betetzen direla egiaztatzea.

Aztertzeko aldagai nagusiak

- EA erkidegoaren bizitegietan eta ez-bizitegietan bildutako TEEH-ak (etxeakoak eta profesionalak)
- EAEn komertzializatutakoak TEE-ak, bildutakoak eta tratatutakoak TEEH-ak
- TEEH-en balorizazio-tasa
- TEEH-en berrerabilitako eta birziklapen-tasa
- Osorik erabilitako TEEH-ak
- Jasotako TEEH-ak per capita.

Eremua

Populazio-eremua:

EAEn merkaturatutako tresna elektriko eta elektronikoak zein jasotako, kudeatutako, balorizatutako, berrerabilitako edota birziklatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen ontziak (tresna osoak), Europako Batzordearen formatuari jarrikiz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen ontziei buruzko 2002/96/EE Zuzentarauari jarraikiz estatu kideek arau hori betetzen dutela kontrolatzeko arauak zehaztu eta datuen formatua ezartzeko den Batzordearen 2005eko maiatzaren 3ko Erabakia).

Lurralde-eremua:

EAEko balio esanguratsuenak jasotzen dira.

Denbora-eremua:

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako jardueren ingurukoak dira.

Galde-sortak

EAE-ko ekoizleek eta TEEHen tratamendu-instalazioen titularrek, urtero, *tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren* eranskinetan zehaztutako galdera-sortak bete behar dituzte.

Europako Batzordearen formatuak (Batzordearen Erabakia, 2005eko maiatzaren 3koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 2002/96/CE Zuzentarauaren ondorioetarako, estatu kideek betetzen dituztela kontrolatzeko arauak zehazten dituen eta datuen formatuak ezartzen dituen).

Zabalkundea

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat.](#)